

Haginaga baten peskizan



TESTUA ETA ARGAZKIA:

Jakoba Errekondo

jakoba@bizibaratztea.eus

Haginetik haginaga. Hagina, *Taxus baccata*, haziak erabili beharrik gabe ugaltzeko. Adar muturretako kimuak, aldaxka gisa, aldatu eta landare berriak sortzeko gai dira. Aldaxka landare “amaren” puska bat besterik ez denez, bertatik sortuko den landare berria haren berdina izango da: hostajearen kolorea, adarrak emateko joera, tamaina, kemena... Klona bat izango da. Klona, aurrekoaren berdina, ezaugarri berberak dituena besterik ez da. Horrek abantailak ditu, eta horiek gure alde erabiltzen azkarrak izan behar dugu. Bertako haginaren aldaxkak erabiltzea da kakoa. Kanpotik ekartzen ditugun haginak ez dakigu nondik sortuak diren, zein tokitako klimara eta lurrrera egokitutakoak diren. Hemengo mendietan berez sortutako hagin zaharrak, ordea, bertan milaka urtean osatutako amona-ama-alaba kate baten katebegi dira, milaka urtean bertara egokituz eta aurrinduz egundaino iritsitakoak dira. Horiexen klonak izango dira gero ere hemen, zeu-



Hagina (*Taxus baccata*).

re lurrean, ondoen bizi eta iraungo dutenak; edozein direla ere, etorkizuneari sor daitezkeen baldintza berrietara bizitza moldatu eta espeziearen iraupena lotuko dutenak.

Eta nola sortu zuhaitza adar muturretatik? Landare “ama” aukeratu, arra edo emea. Izerdia ondoso darabilen edozein urte sasoi ona da, martxotik abendura. Nire ustez, udazkeneko sasoi hau da, hala ere, onena. Adar sano eta indarrean daudenak aukeratu. Arrabete inguruko muturrak moztu, ebaki garbia eginez. Adar puskek erdi biguna eta erdi gogorra izan behar du, ebakitako tokian egurra egiten hasia dena. Alboetan adartxoak baditu moztu eta kendu, baita lurpean sartu beharko dugun beheko aldeko hirutik bitako hosto guztiak ere.

Sustraiak bizkorrago emateko, batetik soildu dugun aieka horretako azalean axaleko zauritxoak egin, labanarekin kariskan, adibidez, eta bestetik aldaxkaren oineko ebakia zanpatu zauria itsustuz. Lur beltza eta hondarra erdibana nahasi, eta, esan bezala, hirutik bi lurpean sartu. Lurperatuko dugun zati hori aurretik hormonatan blaitu. Itzalzalea da hagina; neguan izotzak harrapatuko ez duen toki freskoan jarri. Lurra lehortzen ez utzi, baina ito gabe ureztatu. Egoiena hormonak dituen ura da, haziak (dilista, *Lens culinaris*; txitxirio, *Cicer arietinum*; babarrun, *Phaseolus vulgaris*; arto, *Zea mays*; gari, *Triticum spp*; olo, *Avena sativa*; hirusta, *Trifolium spp...*) edo zume adarrekin (*Salix spp*) egina. Hagin batetik haginaga. ■



CándidoBesa
U P A T E G I A

Eskuernaga (Arabar Errioxa)
Tel.: + 34 945 623 355 / 685 738 193
www.candidobesa.com

